

IL AZALPEN PROBA • <i>Amaren eskuak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Amari zein argazki erakutsi. Zein argazkirekin hasi. Hori pentsatzen sartu da amaren gelara eta ama bertan esnatuta aurkitzean izutu eginda apur bat. Begiak zabal-zabalik aurkitu du eta gelan bakarrik. Ez dago inor alboko ohean. Pilar probaren bat egitera bidaliko zutela pentsatu du. Arraro egin zaio gela bi emakume haiek gabe ikustea. Beste bat ematen du. Zerbait falta zaio. Gaitaren soinua. Eta hitzak. Hitz zaparrada. Pilik esandako hitz guztiak nora joan ote diren galdetu dio bere buruari. Leihotik ihes egin ote duten, ala itsatsita dauden oraindik gelako paretetan, berriz salto egiteko prest. Sartzerakoan, deseroso gerturatu da amarengana. Amaren begirada zuzena, gelako isiltasuna. Isiltasun deserosoa hausteko ama esan du. Ama. Eta amak hitza errepikatu du: ama.

IL AZALPEN PROBA • <i>Amaren eskuak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Askotan entzun dizkio Maitek Nereari haren inguruko kontuak, baina gaur arte ez du izeko Dolores ezagutu. Ospitaleko kafetegiko menua eskatu eta eserita daude hirurak, Dolores, Maite eta Nerea, bandejaz estali duten mahaiaren inguruan. Ospitalerako bidean pixka bat lasaitu da Nerea, baina leher eginda ditu nerbioak. Negarraren ondoko lasaitasunaren antzekoa sentitzen du; ez da, beraz, lasaitasun baketsua, minaren ondoko barealdiak eskainitako tregoa baizik, arnasa hartzeko atsedena. Ez dago ondo, baina ez du izekoren aurrean aurpegi txarrik agertu nahi, eta ahaleginak egiten ari da. Hala eta guztiz, aurpegi txarra duela sentitzen du, izekok zein Maitek begiratzen dioten bakoitzean. Berezi Maitek begiratzen dionean. Telefonoz izan duten elkarrizketaren ondoren kezkatuta geratu da, eta ezin du disimulatu, egin ahalak egin arren. Dolores ere kezkatuta dago, Luisari gaur aurrekoetan baino itxura kaskarragoa hartu diolako, baina honek ere ez du samirik erakutsi nahi eta barrearen keinua dute hirurek aurpegian, izekok Nerea txikitan nolakoa zen kontaktzen duen bitartean.

IL AZALPEN PROBA • <i>Amaren eskuak</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

*Itsaso zakarra gaur, esan zion marinela Urkiolamendi itsasontziko kapitainari. Honek, begirada ortzimugan itsatsita, ez zion ezer erantzun. Ontzi gainean hauekin batera zegoen German gazteak amildegi bat ikusi zuen kapitainaren begietan, zulo ilun eta sakon bat, eta bat-batean, itsasontzia gero eta gehiago mugitzen zela konturaturik, lehorrean utzitakoa pasatu zitzaion burutik, eta neska bat ikusi zuen herriko plazan, domeketako dantzaldian, eta haren gerriari lotuta sentitu zituen bere lixazko eskuak, itsasoak urraturikoak. Mugimendua areagotuz joan zen. Olatuen danbadek alde batetik bestera astindu zuten itsasontzia, gero eta zakarrago, eta bat-batean ura goitik behera jausten sentitu zuen Germanek, euri zaparrada balitz bezala . Parrastada burutik behera. Ura begietatik kentzeko denbora barik, beste zaparrada bat jausi zitzaion goitik behera. Ezpainak kresalez beteta, begiak ezin irekita ia, kapitainaren oihua entzun zuen: sokarekin lotzeko, sokarekin lotzeko. Eta bizitzarekin lotzen zuen zillorrestea balitz bezala, gerrian lotzen hasi zen soka, baina halako batean danbatekoa besteak baino indartsuagoa izan zen, danba, eta kolpeak sokatik askatu zizkion eskuak, eta emakume batek besteari semea lapurtuko balio bezala, itsasoak German kendu zion *Urkiolamendi* itsasontziari. Ez zuen Germanek gehiagorik ezer entzun. Ez zituen aditu kapitainaren oihua berari deika, ezta *Txiki*-ren zaunkak ere. Ikusi zuen azken gauza olatuek hara eta hona mugitzen zuten flotagailua izan zen, eta, hari heldu nahian, dena egin zitzaion beltz.*